

Prentsa oharra

Nota de prensa



ASTE NAGUSIAN, DONOSTIAK AREAGOTU EGINGO DITU ERASO SEXISTEN AURKAKO AHALEGINAK

Donostiako Udalak, Berdintasun Bulegoaren bidez, ekainean abian jarritako eraso sexisten inguruko sentsibilizazio- eta prebentzio-kanpaina indartuko du Aste Nagusian.

Ane Oyarbide Berdintasuneko zinegotziak adierazi duenez, “inguruko beste herri batzuetan berriki izan diren salaketek eta substantzia jakin batzuekin egindako ziztaden ugaritzeak alerta piztu dute, eta jaietan erne egon beharra dago; izan ere, jende ugari biltzen da ekitaldi askotan, eta beste zenbait elementu denok baztertzan ditugun jarrera eta eraso matxisten agerleku izaten dira. Erasoen aurkako kanpainaren fase honen helburua da jarrera proaktiboak sustatzea eta erasoak jasaten dituzten emakumeei eta neskei arreta ematea.”

Hala, Aste Nagusian, Boulevardeko prentsa-kioskoa zegoen tokian, San Jeronimo kale-buruan, INFORMAZIO ETA ARRETA PUNTU FINKO bat jarri da. Hauek dira puntu horren helburuak:

Prentsa oharra

Nota de prensa

- Indarkeria matxistaren aurkako erreferentziazko espazio seguru bat sortzea Aste Nagusian.
- Indarkeria matxistaren aurkako prebentzioa eta sentsibilizazioa sustatzea jendaurrean.
- Bertaratzen diren neskatilei eta emakumeei arreta ematea, eta behar duten informazioa eta laguntza ematea.

Beraz, bi ildo nagusi landuko dira: batetik, sentsibilizazioa eta prebentzioa; eta, bestetik, erasoren bat jasan duten emakume eta neskatoei arreta ematea, eta behar dituzten baliabide eta zerbitzuetara bideratzea.

Informazio- eta arreta-puntuaren ordutegia:

LARUNBATA ABUZTUAK 13	19.00 - 05.00
IGANDEA ABUZTUAK 14	17.00 - 05.00
ASTELEHENA ABUZTUAK 15	15.00 - 05.00
ASTEARTEA ABUZTUAK 16	12:00 – 15:00 19:00 – 04:00
ASTEAZKENA ABUZTUAK 17	12:00 – 15:00 19:00 – 04:00
OSTEGUNA ABUZTUAK 18	12:00 – 15:00 19:00 – 04:00
OSTIRALA ABUZTUAK 19	17.00 - 05.00
LARUNBATA ABUZTUAK 20	17.00 - 05.00

2. SENTSIBILIZAZIOA KALEAN

Oyarbidek adierazi duenez, “udalak indarkeria sexistaren kontra sentsibilizatu nahi ditu donostiarrak; izan ere, desberdintasunak eragindako arazo sozial bat da indarkeria, eta, horregatik, erantzunak ere soziala izan behar du. Guztioi dagokigu errespetuzko, berdintasunezko eta indarkeriarik gabeko jarrera bat sustatzea.”

Aste Nagusian, bi hezitzaile ibiliko dira gazteak dauden tokietan, haiek sentsibilizatzeko asmoz.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Kaleko hezitzaileek gauero emango diete informazioa gazteei (23:00etatik 03:00etara). Kale-edanean aritu ohi diren tokietan jardungo dute, batez ere: portua, Kontxako hegala eta Kursaal aldea.

Lan horietarako kontratatutako profesionalak prestakuntza dute emakumeen eta gizonen berdintasunean, feminismoan, autodefentsan eta prebentzioan, bai eta indarkeria matxistaren arretan ere.

Material hau banatuko da:

- Neska gazteei autodefentsa-mezuak helarazteko liburuxka.
- Konplize ez izateko eta erasoak gaitzesteko mutil gazteei zuzendutako mezuen liburuxka.
- Herritarrei eraso sexisten aurrean nola jokatu azaltzeko liburuxka.
- Erasoen aurkako mezuak dituzten txapak eta eskumuturrekoak.

Gainera:

- Aste Nagusian pankarta bat egongo da jarrita udaletxean.
- Hiriko postontzi guztietan banatu dira, jadanik, jarduketa-protokoloa eta hirian jarritako zerbitzu publikoen laburpena (89.000 ale). Indarkeria matxistik, erasorik edo bortxaketa-saiorik gertatzen bada ere izan beharreko informazioa jasotzen du.
- 10.000 liburuxka espezializatu banatuko dira: 5000 ale neskentzat, erasoak eta tratu txarretan oinarritutako harremanak saihesteko gomendioekin, eta beste 5.000 ale mutilentzat, jarrera aktiboa izateko eta eraso matxisten aurka egiteko eskatzen diena, eraso sotilagoak geldiarazten lagun dezakete eta haiek.
- Eraso sexisten aurkako kanpainaren goiburua duten txapak, eskumuturrekoak eta beste material batzuk banatuko dira.
- Udala elkarlanean arituko da ostalaritza-sektorearekin, Sagueseko txosnekin, eta, aurreko urteetan bezala, indarkeria eta eraso matxisten aurrean jarduteko protokoloen 1250 ale banatuko dira. Pegatinak banatuko dira establezimenduetan jartzeko, eta 100.000 ezpainzapi inguru, denek ere kanpainaren goiburua dutela.
- DBus-eko pantailetan publizitatea txertatuko da, eta publizitate horretan arretarako telefonoak azalduko dira.
- Kanpaina sare sozialetan ere zabalduko da, **#festetanereaske** eta **#noesno** traolekin.

Kanpaina ekainean hasi zen, eta abenduan bukatuko da. Informazio eta material guztia webgune honetan aurki daiteke: Ezezetza.eus